



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## **2019KO URTARRILAREN 14KO BILERAREN AKTA.**

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohikoa.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2019.01.14.  
**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

**Alkatea:** Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

### **Zinegotziak:**

Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Jose Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Juan Maria Gonzalez Burguete jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Mentxu Peña Lizarazu and.  
Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Karrika Nagusia zabaltzeko obrak.
- 3.-Goienburu Karrika moldatzeko obrak.
- 4.-Argia ikastola: Nafarroa Oinez 2019rako diru laguntza eskaera.
- 5.-Salbatore Mitxelena ikastola: Kilometroak 2019ko diru laguntza eskaera.
- 6.- Alkatearen ebazpenak.
- 7.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

Ikusirik 2018ko abenduaren 24an egindako bileraren akta, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-KARRIKA NAGUSIA ZABALTZEKO OBRAK.**

Gaia hau mahai gainean uzten da hurrengo bilera arte.

### **3.-GOIENBURU KARRIKA MOLDATZEKO OBRAK.**

Gaia hau mahai gainean uzten da hurrengo bilera arte.

#### **4.-ARGIA IKASTOLA: NAFARROA OINEZ 2019RAKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Argia Ikastolak aurkeztutako idatzia, 2019. urtean euskararen aldeko Nafarroa Oinez besta antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2019ko aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

#### **5.-SALBATORE MITXELENA IKASTOLA: KILOMETROAK 2019KO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Salbatore Mitxelena ikastolak aurkeztutako idatzia, 2019. urtean Kilometroak jaia antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Udalak dituen lehentasun eta beharrak.

Kontuan hartuz 2019rako aurrekontuan ez dagoela partidarik horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Eskatutako diru laguntza ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

#### **6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bilera geroztik emandako ebazpenen berri eman du: 2019ko 1. ebazpenetik 3. ebazpena arte.

#### **7.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**

#### **8.- M. PILAR ALZURI MAIZ ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDUA ESKAERA.**

Ikusirik M .Pilar Alzuri Maiz andreak aurkeztutako eskaera, Trapazelai eta Telleria alderdietan dauden zuhaitzen (haritz amerikanoak) probetxamendua egiteko (entresaka), 4. poligonoko 172. eta 115. lur zatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M. Pilar Alzuri Maiz andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea probetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena.

